



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko azaroaren 28a

82 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (3. or.).
- Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Lege proiektua. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).
- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdiarako ezartzen dituenak. Akats zuzenketa (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Foru Gobernua premiatuz Belate eta Almandozko tunelak erabilera publikorako zabal ditzan, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatuz N-121 errepidea, Belateko mendatetik iragaten den tartean, trafikorako zabal dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat igor dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa, “Reforma de las Humanidades” deitutako Dekretua gaitzesten duena, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztua (16. or.).
- Mozioa, Foru Gobernuari zenbait sendagai Gizarte Segurantzako zerrendetatik kanpo uztea egoki diren instantzietan arbuia dezala eskatzen diona, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Bideko Ama Birjina ospitalean burutu den langileria-politikari buruzko galdera, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak eginga (19. or.).

- Gizarte Segurantzako sendagaien zerrendetatik produktuak ezabatzearen gainean Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzko galdera, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egin (19. or.).
- Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen bitartekotasun-tasari buruzko galdera, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egin (20. or.).
- Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialean aurkezturiko eskabideak beste zentro batzuetara desbideratuko ote diren itauntzen duen galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (21. or.).
- Zangozako Ur Mankomunitatearentzako ur-hornidura obren kontra aurkeztutako balizko salaketari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (22. or.).
- Nafarroako etxebizitzaren prezioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (22. or.).
- Behi-ustiategietan kalitatezko esnea ekoizteari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (23. or.).
- Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubidearen egoerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (24. or.).
- Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, S.A. izenekoaren sortzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (25. or.).
- Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren Aurrerapenaren berri izan ote duen itauntzen duen galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egin (26. or.).
- Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (27. or.).
- Iruñea, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lurren kontrol eta jarraipenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (27. or.).
- Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesuari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (28. or.).
- Eurovestir enpresari buruzko galdera, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak egin (29. or.).
- “Ustiategien oinarritzko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Legea)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Proiektu hori 1997ko azaroaren 3ko 71 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 21

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOAREKIKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina, Foru Lege proiektu hori itzultzeko eskatuz.

Zioen azalpena:

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle funtzionarioendako ordainketa-osagarri berezia proposatzen duen Foru Lege proiektuak lege-estaldura eman nahi dio "egoitzagatiko kalteordaina" kontzeptuaren arabera egiten zen abonua ohia-ri, 1990eko urtarrilaren 1etik 1992ko abenduaren 31 bitartean indarrean izan baitzen.

1994ko maiatzean, NUPeko Gobernu Batzordeak haren izena aldatzea erabaki zuen eta "Irakaskidegoetako irakasleak parekatzeko osagarria" izena ezarri zitzaion, 1995eko urtarriletik aitzina aplikatzeko, eta errektoretzari eman zion Erregelamendua interpretatzeko ahalmena.

Aldi berean, Gobernu Batzordeak erabaki zuen "Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuko Batzordeari proposatzea osagarri bat aplikatzea...".

Kontuen Ganbarak 1996an osagarriaren legezkotasunari buruz egin zuen txostenaren arabera, ez proposamena egin zuen taldeak ez NUPen gero izan diren taldeek ez zuten proposamen hori gauzatu.

Bestaldetik, txostenak berak dio "Nafarroako Foru Komunitatea espreski pronuntziatu behar dela, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, irakasleen eta irakasle ez diren langileen kostuen baimen berariazkoari buruz".

Unibertsitatearen Erreformari buruzko 11/1983 Lege Organikoak irakasleen funtzionario-sistema ezarri du, eta Estatuari dagokio hori uniformeki fin-
katzeari (UELko 46. artikulua).

Autonomia Erkidegoek ez dute funtzionario-estatutu horren legegintza-garapena egiteko eskumenik. Unibertsitateetako irakasleak ez dira Autonomia Erkidegoetako funtzionariotzat jotzen.

Aipatu Lege Organikoko 54.4 artikulua Autonomia Erkidegoen esku utzi du Unibertsitateko aurrekontuen gastuen egoerak kontrolatzeko ahalmena, irakasle eta irakasle ez diren langileen kostuen berariazko baimenari buruzkoan. Foru Komunitateak ahalmen hori erabil dezake NUPeko irakasleen kostuak baimentzeko.

UELk, era berean, 46.2 artikulua bitartez, Gizarte Kontseiluari baimena ematen dio bestelako ordainketa kontzeptuak baimentzeko "banan-banan", irakaskuntza-, ikerketa- eskakizunak edo merezimendu esanguratsuak direla-eta, 1086/89 Errege Dekretuan beren-beregi adierazten direnak.

Horiek horrela, hurrengo balorazioa egiten dugu Nafarroako IU/EBtik:

– Lege proiektua ez dator indarreko legediarekin bat eta, beraz, Estatuak errekurritu dezake.

– NUPek ez du gaur egunera arte erabili UELk ematen dizkion eskumenak, alegia, Gizarte Kontseiluaren bitartez irakasleendako ordainketa-osagarria proposatzea. NUPeko Gobernu Batzordeak ere ez du orain arte bete 1994an harturiko erabakia, hau da, Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari proposatzea Unibertsitateko irakasleendako osagarria.

– Kontuen Ganbarako txostenak atera duen ondorioa da Foru Komunitateak, aurrerantzean, UELko 54.4 artikulua ematen dion ahalmena erabili beharko duela, NUPeko langile-kostuei baimena eman edo ez emateko.

– Lege proiektua NUP alde batera utzita egin da, eta hango Langileen Batzordeari ere ez zaio Lege proiektuaren berri eman. Langile Batzorde horretako gehiengoak proiektuarekin ados ez dagoela adierazi die Parlamentuko Taldeei.

– Lege proiektu honek, gure ustez, estalitako homologazio saioa legeztatu nahi du. Ez da beharrezkoa, bestelako lege-bideak badirelako eta Estatuak errekurritu egin dezake, gainera.

Hori guztia horrela, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeak hauxe proposatzen du:

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

2. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Lege proiektua Gobernuari itzuli behar zaio, ulertzen dugulako sakon aztertu behar direla bai proiektuaren xedea (irakasleei osagarri bat ordaintzea), bai aipatu legea Nafarroako Parlamentuak onesteak ekar litzakeen ondorio juridiko eta sozialak ere.

Izan ere, hurrengo gorabeherak izan behar dira kontuan:

Unibertsitatearen hasieran, Unibertsitatea abiarazteko tresna izan zen osagarria, eta Foru Gobernuak 1989ko abenduaren 28an hartutako

erabakiak eman zuten baimena irakasleei egoitzagatiko kalteordaina emateko, plantila egokia finkatu eta lortzeko xedez. Ohiz kanpoko eta aldi baterako izango zela erabaki zuten, 1992ko abenduaren 31ra arte, alegia.

Jakitun gara Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoak, bere 46. artikuluan hauxe dioela: "Gobernuak ezarriko du unibertsitate-irakasleen ordainketa-araubidea, eta uniformeak izango da Unibertsitatea guztietan".

46. artikulua horrek berak, hala ere, bigarren puntuak aukera ireki du Unibertsitate bakoitzeko Gizarte Kontseiluak bestelako ordainketa kontzeptuak baimentzeko "banan-banan", irakaskuntza-, ikerketa-eskakizunak edo merezimendu esanguratsuenak direla-eta.

Kontuen Ganbarak, txostena eman zuten 1996ko ekainaren 24an, Unibertsitateko Irakasleen Kidegoak parekatzeko osagarriaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak 1995erako Aurrekontuetako eta aurrekoetako 121.05 kontusailean egindako doikuntzaren legezkotasunari buruz. Txosten horretan aipatu osagarriaren legezkotasuna zalantzan jarri eta espreski aipatzen du UELA, eta Autonomia Erkidegoek eskumenik ez dutela unibertsitate-irakasleen funtzionario-estatuari buruz.

NUPeko Gobernu Batzordeak gai berberaren gainean 1993ko urtarrilaren 27an onetsitakoa dela-eta Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren berri ere badugu, eta argi eta garbi adierazten du NUPek Nafarroako Gobernuaren kontra aurkeztutako errekurtsoa ez duela onartzen, UELko alderdi juridikoetan oinarrituta.

Gai horiek guztiek kezkatu egiten gaituzte, batez ere Unibertsitatearen azken xedeari eragin diezaioketelako, alegia, Nafarroako gazteen heziketa eta lanbide-prestakuntza ahalik eta handienari.

Beraz, ez dugu nahi prestakuntza hori gutxitzea, soilik irakasleen estatutuarekin zerikusia duten albo-arazoengatik.

Hori guztia horrela, Gobernuak gai hau sakon aztertu behar duela uste dugu, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren garapenarentzako eta guztion onurarentzako irtenbiderik egokiena bilatzeko.

Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Lege proiektua

NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1997ko urriaren 21eko 67 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hauek defendatzen ahalko dira:

– 6, 7 eta 8 zenbakikoak, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztuak.

Emendakin horiek 1997ko azaroaren 19ko 77 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 1997ko azaroaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritzako politikak aplikatzeak galdatzen du, gero eta gehiago, Administrazio Publikoek informazio aski izatea nekazaritza arloa eta honen bilakaera objetibotasunez ezagutzeko behar dituzten datu estatistikoei buruz, nekazaritza eta abeltzaintza antolatzeke eta haien planifikazio ekonomikoa egiteko.

Laguntzen tramitazioa gero eta konplexuagoa da, bai Europako Batasunak finantzatuak, bai nazionalak eta autonomikoak ere eta, hortaz, beharrezkoa da nekazaritza ustiategien eta haien titularren ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutzea. Horrek berekin dakar beste hauek ere jakitea: ustiategiaren orientabide tekniko-ekonomikoa (O.T.E.), titularren dedikazioa, erabiltzen den eskulana, ustiatze errenta, etab.

Beraz, nahitaezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat nekazaritza ustiategiak definitzeko tresna bat sortzea eta ezarritako onurak emateko lehentasunezko irizpideak jarritzea, Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako

jarduerak antolatzeke eta planifikatzeko politika eraginkor eta koherente baten barrenean.

Bestalde, ekonomia antolatzeke eta haren plangintza orokorra koordinatzeko behar diren oinarriak edo neurriak arautzeko dituen eskumenen arabera, Estatuak diktatu du nekazaritza ustiategien gaurkotzeari buruzko oinarriko legea, uztailaren 4ko 19/1995 Legean bildua dagoena. Lege horretan bildu dira, orobat, beste eskumen-titulu batzuetan oinarriturik, errentamenduen legezko araubidearen aldaketa eta landa finka batzuen zatiezintasuna, beste xehetasunen artean. Bertan ezarri da, halaber, lehentasunezko ustiategiei zenbait onura fiskal ematea. Horren aplikazioa Nafarroako foru tributu araubidearen menean dago, aipatu Legearen Azken Xedapen-tako bigarrenaren arabera, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45.2 artikuluari jarraituz.

Bada, nekazaritzan eta abeltzaintzan Nafarroak dituen eskumenak abiapuntu harturik eta bere tributu eta zerga araubidearen gainean, Foru Lege honek bi bide ezartzen ditu gure Komunitateko nekazaritza arloa sustatzeko eta antolatzeke: Nekazaritza ustiategien Erregistroa, Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ezagutzeko tresna administratibo gisa, gerora arlo horiei laguntzeko arazoizko politika baten plangintza egin ahal dadin, eta guztiondako legeriak ezarritako zerga onurak zabaltzea, eta hobetzea, behar bada, Nafarroako nekazariari eta, batez ere lehentasunezko nekazaritza ustiategiei eta nekazari gazteei.

Foru Legea lau Titulutan eratu da:

* Atariko Tituluak Foru Legearen xedeak ezartzen ditu, baita haren aplikazio eremua ere, gehienbat Foru Komunitatearen lurraldean diren nekazaritza ustiategi guztietara hedatzen dena.

* I. Tituluak Nafarroako Nekazaritza ustiategien Erregistroaren baldintzak eta betebeharrak finkatzen ditu. Bertan, lehentasunezko nekazaritza ustiategien katalogoa eta nekazari gaztearen izaera bereizten dira, lehenik, eta gainerako nekazaritza ustiategien katalogoa, gero. Erregistroan sartzeko aldeak halaxe eskatuta egiten da; hala ere nahitaezkotzat jotzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura diren onura eta laguntzak jaso ahal izateko. Jasotako datuen pribatutasuna bermatua dago.

* II. Tituluak lehenetsunezko nekazaritza ustiategiek, familian nahiz elkar lanean landuek, behar dituzten ezaugarriak ezartzen ditu.

* III. Tituluan ondoko hauek finkatzen dira: nekazaritza ustiategiendako Nafarroan ezarri diren sustapen laguntzak jasotzeko lehenetsunak, jabetza hartzeko zerga onurak, batez ere gazteentzat, arloa gazteagotzeko (horregatik lehenbiziko instalazioak ere sustatu nahi dira); azkenik, zerga araubide berezia ezartzen da landa finken eta nekazaritza ustiategien eskualdatzeak dakartzan ondare handitzeetarako.

ATARIKO TITULUA **Xedapen Orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedek ondoko hauek dira:

a) Nekazaritza ustiategien Erregistroa sortzea, behar den informazioa jarraian, integratua eta eguneratua eskuratzeko tresna publiko gisa, Nafarroako nekazaritza arloa antolatzeke eta haren plangintza ekonomikoa egiteko, nekazaritza egiturak gaurkotzeko politika egokia garatzeko, baita informazio orokorreko ondorio estatistikoetarako ere.

b) Nafarroako nekazaritzako ustiategien ezaugarriak definitzea.

c) Laguntza publikoak jasotzerakoan lehentasuna izateko nekazaritza ustiategiek behar dituzten baldintzak zehazteko datuak izatea.

d) Nekazarien elkarteratzea bultzatzea, nekazaritza ustiategiek behar adinako neurriak izan ditzaten.

e) Nekazari gazteen sarrera erraztea, ustiategi bideragarrien titular gisa.

f) Lurraren merkatuaren mugikortasuna areagotzea, bai jabetzan, bai errentamenduan.

g) Lehentasunezko nekazaritza ustiategiei aplikatu ahal zaizkien zerga onuren markoa ezartzea.

2. artikulua. Ezarpen eremua.

Foru Lege hau aplikatuko zaie gehienbat Foru Komunitatearen lurraldean diren nekazaritza ustiategiei.

3. artikulua. Definizioak.

Foru Lege honen ondorioetarako, ondoko hauek dira definizioak:

1. Nekazaritza jarduera: nekazaritzako, abeltzaintzako eta oihangintzako produktuak eskuratzeko behar den lan multzoa.

2. Nekazaritza ustiategia hau izanen da: nekazaritzako ekoizpenerako _funtsean, merkaturatzeko_ titularrak edo kotitularrek enpresarialki antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa, beti ere unitate tekniko-ekonomikoa osatzen badu.

3. Ustiategiko elementuak: landa ondasun higiezinak eta nekazaritzan jarraian aprobetxatzen diren beste guztiak; bizitetxea bere tegiekin; ustiategian eta berari lotuak diren nekazaritzako erai-kin eta instalazioak, baita industriakoak ere, eta aziendak, makinak eta lanabesak, horien aprobetxamendua eta erabilera titularrari badagozkio jabetzan, errentamenduan, erabiltzeko eta gozatzeko eskubidean edo jabeak titularrari utzitakoak badira. Ustiategiko elementuak dira, orobat, titularrari dagozkion eta ustiategiari lotuak dauden eskubide eta betebeharrak guztiak.

4. Ustiategiaren titularra: nekazaritza-jarduera burutzen duen pertsona fisikoa nahiz juridikoa, ustiategia osatzen duten eskubideak eta ondasunak enpresa-irizpideekin antolatzen dituena, eta ustiategia kudeatzeagatik erantzukizun zibil, fiskal eta sozialak eta ekonomia-arriskuak bere gain hartzen dituena.

5. Nekazari profesionala: nekazaritza-ustiategi baten titular izanik, bere errenta osoaren 100eko 50a nekazaritza-jardueretatik edo jarduera osagarri batzuetatik lortzen duena, baldin eta zuzenean bere ustiategian burutzen duen nekazaritza-jardueratik lortutako errenta ez bada guztirako errentaren 100eko 25a baino beheragokoa eta nekazaritzako lanetan edo jarduera osagarrietan emandako denbora bere lanaldi osoaren erdia baino goragokoa bada.

Ondorio horietarako, hurrengo hauek dira jarduera osagarriak: titularrak, hauteskunde publikoan aukeratua izateagatik, ordekariz osatutako erakundeetan parte hartzea eta bertan egotea, baita sindikatu, kooperatiba eta profesionalen ordekaritza organoetan ere, nekazaritza arloarekin loturik badaude. Orobat bere ustiategiko produktuak eraldatzeko eta zuzenean saltzeko jarduerak, naturguneak kontserbatu eta ingurugiroa babestekoak eta bere ustiategian egiten diren jarduera turistiko, ehizako eta eskulaneakoak.

6. Nagusiki nekazaria: guztirako errentaren 100eko 50a bere ustiategian burutzen den nekazaritza-jardueratik ateratzen duen nekazari profesionala, ustiategiko jarduerekin lotuta ez dauden lanetan emandako denbora guztirako lanaldiaren erdia baino gehiago ez bada.

7. Nekazari gaztea: hemezortzi urte beteak izanik oraindik berrogei bete ez dituen pertsona

eta nekazaritzan jardun edo jarduteko asmoa duena.

8. Lur gutxiko nekazaria: bere nekazaritza ustiatzea neurri europarreko (NEU) 12 unitate baino gutxiagokoa duen nagusiki nekazaria, guztirako errenta erreferentziako errentaren 100eko 75aren adinakoa edo txikiagoa badu.

9. Lanaldi partzialeko nekazaria: nekazaritza ustiatze baten titularra den pertsona fisikoa. Ustiatzean ez du lanaldiaren bostena baino gutxiago sartu behar, ezta lanaldi osoaren erdia baino gehiago.

10. Nekazaritzako lan unitatea: nekazaritzako lanetara urtebetean egun osoz pertsona batek egiten duen lana.

11. Lan unitatearen errenta: nekazaritza-ustiatzean sortzen den ekonomia-errendimendua, lan unitateari egotzen zaiona; honela ateratzen da: ustiatzean erabiltzen diren nekazaritzako lan unitateen kopurua, zati, ustiatzearen gaindikin garbia edo marjin garbia ordaindutako lansarien zenbatekoarekin batuz ateratzen den zenbatekoa.

12. Erreferentziako errenta: Espainian nekazaritzakoak ez diren lansari gordinei buruzko indikatzailea. Horien zenbatekoa urtero zehaztuko da Europako Batasunaren Arauekin bat eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako lansariei buruzko datuak kontutan hartuta.

LEHENBIZIKO TITULUA

Nafarroako nekazaritza ustiatzearen erregistroa

4. artikulua. Sorrera.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroa sortzen da, Foru Lege honetan finkatutako baldintza eta ondorioekin.

2. Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroa zerbitzu administratibo eta doako gisa eratu da. Bere xedeak dira Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiatzeak inskribatzea, lehentasunezkoak diren edo ez diren zehaztea eta lehentasunekoiei egiaztagiriak ematea, Foru Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroaren kudeaketa.

4. Nekazaritza Ustiatzearen datuei dagokienez, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan eta Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari

buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37 artikuluan ezarritakoei jarraituko zaie.

5. artikulua. Inskriba daitezkeen egintzak.

1. Erregistroan inskribatuko dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiatzeak, beraien titularra edozein dela ere.

b) Ustiatzearen ematen diren funtsezko aldaketak.

2. Inskribazioan ondoko hauek aipatuko dira:

a) Ustiatzearen titularra edo titularrak eta beraien nortasun identifikazioa edo talde edo sozietatea eratu zeneko agiria, titularrak nortasun juridikoa badu.

b) Titularren edo titularren lanbide kualifikazioa, zein famili ustiatze izan, zein kideena, ustiatzei elkartua bada.

c) Gizarte segurantzaren afiliatua izatearen agiria, zein famili ustiatze izan, zein kideena, ustiatzei elkartua bada.

d) Ustiatzearen ezaugarri orokorrak, bere egoera eta ekoizpenaren orientabidea.

e) Berari lotutako lurak, edozein dela ere edukitze erregimena, ondoko hauekin: katastroko identifikazioa, azalera eta izaera, ureztalurra nahiz lehorrekoa, belardia nahiz oihana, larrea nahiz arboladia.

f) Nekazaritzako eraikin eta instalazioak, baita industri izaera dutenak ere.

g) Bizitexea nekazaritzarako bere tegiekin.

3. Inskribazioa egiterakoan eta prozedura aiseago gauzatzeko, Nafarroako nekazaritza ustiatzei buruz Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan diren datuak erabiliiko dira.

4. Erregistroaren ondorioetarako, funtsezko aldaketak ondoko hauek izanen dira:

a) Nekazaritza jardueran baja ematea.

b) Ustiatzearen titulartasun izaten diren aldaketak.

c) Ustiatze elementuetan izaten diren aldaketak.

d) Aldaketak hurrengo hauetan: ustiatzearen titulartasun motak, kokapena, lekua eta ustiatzearen mugaketa.

e) Kapital sozialean edo erabaki-organoetako ordezkartzearen diren aldaketak. Orobat ustiatzei elkartutako kudeaketan eta administrazioan direnak.

f) Ustiategiarekin harremana duten langileen aldaketak.

g) Ekoizpenaren orientabidean izaten den aldaketa.

6. artikulua. Inskripzioaren sustatzailea.

1. Nekazaritza ustiategi bat Erregistroan inskribatzea ustiategiaren titularrak edo haren ordezkariak halaxe eskatuta eginen da.

2. Nekazaritza ustiategia behin inskribatuz gero, ustiategiaren titularrak nahitaez adierazi beharko dizkio Erregistroari ustiategian gertatzen diren funtsezko aldaketak.

7. artikulua. Nahitaezko inskripzioa.

Aurreko artikuluaen 1. idazatian ezarritakoa gora-behera, nahitaez sartu beharko da Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan, edo, behar bada, sartzea eskatuko da, arauz galdutako dokumentazioa osatua denean, hurrengo hauetarako:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura nekazaritza arloa babesteko Foru Komunitateko Administrazioak ezarriak dituen edo ezarriko dituen laguntzak edo Foru Lege honetan finkatutako onurak eskuratzeko.

b) Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 3. artikuluko c) idazatian definitutako xedeak lortzeko Foru Komunitateko Administrazioak ezarri dituen laguntzak jasotzeko.

8. artikulua. Erregistroko liburuak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroak liburu hauek beharko ditu:

a) Egunkaria.

b) Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategiaren inskripzioarena: bertan idatziko dira izaera hori dutenak, Foru Lege honetan xedatutakoaren arabera. Lehentasunezko ustiategiaren titularrak edo titularkidea nekazari gaztea denean, aipamena eginen da.

c) Nekazaritza Ustiategiaren inskripzioarena: bertan bilduko dira aurreko idazatik ezaugarriak ez dituzten nekazaritza ustiategiak.

2. Nafarroako Gobernuak arauz zehaztuko du Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua, eta Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroa osatzen duten Liburuak errazago betetzeko informatika sistemen aplikazioa, Zuzenbidean onartua, bultzatuko du.

3. Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategiaren Liburua mantentzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Departamentu horreketan eta Ekonomi eta Ogasunekoan diren datuak erabili ahalko ditu Erregistrokoak ez diren eskumenen jardueran, beti ere datu pertsonalen tratamenduaren arloan indarra duen legediak dioenari jarraituz.

II. TITULUA

Lehentasunezko ustiategiak

9. artikulua. Lehentasunezko ustiategiak.

Foru Lege honetako 10. eta 11. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili ustiategiak, eta, behar denean, ustiategi elkartuei, nekazaritzako lehentasunezko ustiategi izaera emanen zaie Erregistroan inskribatze ondorioetarako, eta Foru Lege honetan ezarritako onurak jaso ahalko dituzte.

10. artikulua. Famili ustiategiak edo titulartzat pertsona fisikoak dituztenak.

1. Lehentasunezko ustiategitzat hartzeko, famili ustiategiak edo titulartzat pertsona fisikoak dituztenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ustiategiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat hartu behar du.

b) Nekazaritza ustiategitik eskuratzen den lan-unitatearen errenta erreferentziako errentaren 100eko 35 eta 120 artean egotea, Foru Lege honen lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarritakoa ukatu gabe.

c) Titularra nagusiki nekazaria edo nekazari profesionala izatea, Foru Lege honen 3. artikuluko 5. eta 6. idazatietan ezarritakoaren arabera.

d) Nekazaritzarako gaitasun aski izatea. Hori zehazteko prestakuntza aktiboa eta lanbidean den esperientzia izan behar dira kontuan.

e) Hemezortzi urte beteak izatea eta hirurogeita bost oraindik ez.

f) Gizarte Segurantzako norberaren kontuko langileen Nekazaritzako Araubide Berezian edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emana izatea, bere nekazaritzako jarduera dela medio.

g) Nafarroan helbideratua egotea edo Erkidego Autonomo mugakideen lurraldearen antolamenduari buruzko legeria autonomikoan mugako eskualdetzat jotzen den batean. Helbideratze baldintza honek ezinbesteko kasuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Etxebizitza Departamentuak onartutako beharra ditu salbuespen.

2. Ezkontza kasuan, ustiategiaren titulartasuna bi ezkontideena bada, lehentasunezko gisa hartzeko, aski izanen da ustiategiak eta ezkontidetako batek artikuluko honetan finkatutako baldintzak betetzea.

3. Nekazaritza ustiategiak jaraunspen-komunitate batenak izan eta haien gainean sei urtetarako bederenik zatiezintasun ituna badute, lehentasunezko ustiategizat hartuko dira, ustiategi horiek eta komunitateko kideren batek, gutxienez, artikuluko honetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Zatiezintasun aldia lehentasunezko ustiategi deklaratzetik aurrera zenbatuko da.

11. artikulua. Nekazaritzako ustiategi elkartuak.

1. Lehentasunezko ustiategizat hartzeko, nekazaritzako ustiategi elkartuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Sozietate kooperatiboaren, nekazaritzako eraldakuntza sozietatearen, edo sozietate zibilarren, lan sozietatearen edo merkataritzako beste baten forma juridikoa izatea. Nolanahi ere, sozietate zibilen, lan sozietateen edo merkataritzakoen xede bakarra, titulartasuna duten ustiategietan nekazaritzan jardutea izanen da.

b) Sozietate anonimoen kasuan, akzioek izendunak behar dute izan eta kapital sozialik badago, 100eko 50 baino gehiago nagusiki nekazariena edo nekazari profesionalena.

c) Ustiategiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat hartu behar du eta bertan eskuratzen den lan-unitatearen errenta erreferentziako errentaren 100eko 35 eta 120 artean egon.

d) Kideen 100eko 50 gutxienez nekazari profesionalak izatea edo nagusiki nekazariak, aurreko artikulua 1. zenbakiaren f) letran aipatutako baldintza betetzen dutenak. Hori ez bada, kudeaketaren eta administrazioaren ardura duten kideetatik bi herenak lanari eman beharreko denbora eta nekazaritzako lan ustiategiko errenten jatorriari dagokionez, nagusiki nekazariari edo nekazari profesionalari eskatzen zaizkion baldintzak betetzea, baita lehentasunezko famili ustiategietako titularrei edo ustiategi horietako titular diren pertsona fisikoei, aurreko artikuluko 1. idatzian aipatu direnei, eskatzen zaizkion baldintzak ere. Era berean, ustiategi horretako lanaren bi heren, gutxienez, lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten kideek egin behar dute.

2. Lehentasunezko ustiategi elkartutzat hartuko da, baita ere, ustiategi baten bi heren, gutxienez, muga bakarraren barrenean dituen ustiategia, baldin kide bakar batek ez badu ustiategiaren

azaleraren ehuneko 40 baino gehiago. Ustiategi hauetan kide batek bederenik nagusiki nekazari behar du eta lan horretara emana. Horretaz gain, famili ustiategietako titularrei edo nekazaritza ustiategietako titular diren pertsona fisikoei eskatzen zaizkien baldintzak, 10. artikuluan aipatu direnak, bete beharko dituzte.

3. Halaber, lehentasunezko nekazaritza ustiategizat hartuko da titularkide nekazari gazte bat duena, baldin ustiategi haietako titularrei eskatzen zaizkien baldintzak pertsonalki betetzen baditu.

12. artikulua. Inskripzioaren egiaztagiria.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, interesatuak halaxe eskatuta, ustiategia Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan sartu izanaren egiaztagiria luzatuko du.

2. Egiaztagiria beharrezko izanen da Foru Lege honetan finkatutako onurak eskuratzeko, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Aurrekontu Orokorren kargura nekazaritza alorra babesteko ezarri edo ezarriko dituen laguntzak jasotzeko ere.

13. artikulua. Nekazari gazteak.

1. Lehentasunezko joko da nekazari gazteen lehenbiziko instalazioa, Nekazaritzako Finantzazioari buruzko lege lerruneko xedapenen Testu Birbildua onetsi zuen apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegileari eta hura garatu duten arauari jarraikiz, nekazaria lehentasunezko nekazaritza ustiategi bateko titularra edo titularkidea bada.

2. Era berean 14. artikulua 1. zenbakiko d) idaztiak aipatzen dituen kuoten asignazioan eta ekoizpen eskubideetan lehentasuna izanen dute gainerako lehentasunezko ustiategien ondoan, lehenbiziko instalazioarekin lehentasunezko ustiategietako titularrak edo titularkideak diren gazteek.

III. TITULUA Onurak

14. artikulua. Lehentasunezko egoerak.

1. Lehentasunezko ustiategietako titularrek lehentasunezko tratua izanen dute honako kasuetan:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ezarrita dagoen edo ezar daitekeen edozein laguntzatan.

b) Fondo publikoekin diruz lagundutako nekazaritzako aseguruaren kontratazioetan.

c) Nekazaritzako ekoizpenen antolamendurako programetan edo berariazko lurralde eremuak sartutako laguntzen kasuan, beti ere hori bateragarria baldin bada programa horien helburuekin.

d) Merkatuko erakunde komun ezberdinen arautegi erregulatuak aplikatu edo garatzearen ondorioz eraturiko kuota edo eskubideen esleipenean, beti ere bat etorri arau horietan horretarako ezarritako baldintzekin, hori guztia, esleitzen diren kuota edo eskubideak, osotara edo zati batean, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura eskuratzen direnean eta Foru Komunitateko Administrazioari dagokionean horiek esleitzea.

e) Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 3. artikuluan c) idazatian zehazturiko helburuak lortzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarrita dituen edo ezar ditzakeen laguntzetan edo Foru Lege horren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusia dagoen lur fondoan sarztearen kasuan.

2. Aipatu diren lehentasunezko egoerek baldintza bat izanen dute, alegia, ustiategiak ezin izanen duela lehentasunezko izaera galdu aurreko atalean azalduriko neurriak aplikatzeagatik; gainera, neurri hauek aplikatzearen ondorioz lehentasunezko izaera lortzen duten ustiategietako titularrak ere horietaz baliatu ahalko dira.

15. artikulua. Maileguak.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzen duen 1981eko martxoaren 17ko Foru Arauaren 22. artikuluko 2. zenbakiak aipatzen duen "Egintza Juridiko Dokumentatuak" kontzeptutik salbuetsiak egonen dira honako hauek: Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako mailegu hipotekarioen eratzea, aldatzea edo kitatzea dokumentatzen duten eskritura publikoen lehenbiziko kopiak, beti ere mailegu horiek ematen baldin bazaizkie lehentasunezko ustiategietako titularrei hobekuntza planak egiteko, lehentasunezko ustiategiak ez izan arren maileguz finantzaturiko eskurapenei esker izaera hori lortzen duten ustiategietako titularrei, eta nekazari gazteei edo soldatapekoei nekazaritzako ustiategi bat lehen aldiz instalatzeko aukera izan dezaten.

16. artikulua. Ustiatagia osorik eskualdatzea.

1. Nekazaritzako ustiategi oso baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada lehentasunezkoa den edo eskurapenaren ondorioz izaera hori

lortzen duen beste ustiategi bateko titularraren alde edo halako titular bat izanik egilea, orduan, eskualdatze edo eskuratze horrek 100eko 90eko murrizketa izanen du ustiategiaren edo hori osatzen duten elementuen eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergaren zerga-oinarrian, hori guztia, baldin eta, eskualdatzearen ondorioz, eskuratuaren ustiategiak duen lehentasunezko izaera aldatzen ez bada. Ustiategiaren eskualdatzea eskritura publiko bidez egin behar da.

Murrizketa 100eko 100era iritsiko da, baldin eta ezkontide superstitiak ustiategiarekin jarraitzen badu edo eskuratuaren nekazari gaztea edo soldatapekoa bada, eta bi kasuetan, eskualdatzea edo eskuratzea lehenbiziko instalazioaren ondoko bost urteen barnean egiten bada.

Zenbaki honetako lehen lerroaldean aipatu ondorioetarako, nekazaritzako ustiategi osoaren eskualdatzea egiten dela ulertuko da, baita etxebizitza kanpoan uzten denean ere.

2. Murrizketa gauzatu ahal izateko, hori azaldu beharko da eskuratzearen eskritura publikoan eta Jabetza Erregistroan, baldin eta eskualdaturiko finkak erregistro horretan inskribatuta bazeuden. Eskuraturiko finkak hurrengo bost urteko epean besterendu, errentan eman edo lagatuko balira, aldeztu aurretik honako justifikazioa egin beharko litzateke: dagokion zerga ordaindu izanarena, edo egindako murrizketaren ondorioz ordaindu gabe gelditutako horren zatiarena, bai eta berandutze interesena ere, salbuespen izanik ezinbesteko kasuak, heriotza, elbarritasuna edo titularrak jarduera uztea jubilatuta delako bai adinarengatik, bai arauz ezarrita dagoen beste edozein arrazoirengatik.

17. artikulua. Muga bakar baten barneko ustiatagia osatzeko eskualdatzea.

1. Landa finken erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, baldin eta hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat eratzeko asmoz muga bakar baten barnean horretarako beharrezkoa den azalera biltzeko, orduan, eskualdatze edo eskuratze hori salbuesia egonen da eskualdatzearen edo eskuratzearen gaineko zergatik, hori guztia, baldin eta eskuratuari buruzko agiri publikoan azaltzen bada egindakoaren ondorioz geratzen den finka ezin izanen dela zatitu bost urteko epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Eskualdatetaren edo eskuratzearen gaineko zergari dagokion zerga-oinarrian 100eko 50eko murrizketa aplikatuko da honako kasuan: nekaza-

ritzako ustiatgien titularrek lurren eskualdatzea edo eskuratzea egiten dutenean muga bakar baten barnean biltzeko ustiategi bateko azalaren 100eko 50a gutxienez, beti ere horri dagokion lan-unitatearen errenta Foru Lege honek ezarritako mugen barnean baldin badago, hori guztia, lehentasunezko ustiategietarako zerga onurak ematearen ondorioetarako. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, arestiko artikuluan zatiezintasunaren eta eskuratzeari buruzko agiri publikoaren gainean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

18. artikulua. Ustiategi eta landa finketako zati batzuen eskualdaketa.

1. Landa finka baten edo nekazaritzako ustiategi bateko zati baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada eskurapenaren ondorioz lehentasun izaera galtzen ez duen edo lortzen duen lehentasunezko ustiategi bateko titularren alde, orduan, 100eko 75eko murrizketa aplikatuko da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergaren zerga-oinarrian.

2. Murrizketari portzentaiaren arabera hamar puntu gehituko zaizkio eskuratazalea soldatapeko nekazaria denean, eta 100eko 100era iritsiko da nekazari gaztea izanez gero eta, bi kasuetan, eskualdaketa edo eskuratzea lehenbiziko instalazioaren ondoko bost urteen barnean egiten bada.

3. Onura aplikatu ahal izateko, eskualdaketa eskritura publiko bidez egin beharko da, eta 16. artikuluko 2. idazatian ezarritakoa aplikatuko da.

19. artikulua. Landa finken truketzea.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak landa finken gainean baimentzen dituen borondatezko trukeak salbuetsiak egonen dira Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "kostubidezko ondare eskualdaketak" kontzeptutik edo Balio Erantsiaren gaineko Zergatik, beti ere, trukea egiten dutenetako bat, gutxienez, lehentasunezko nekazaritza ustiategi bateko titularra baldin bada eta trukeak –zeina eskritura publiko bidez egin behar baita– helburu hauetakoren bat baldin badu:

a) Lurzati kokatuak deusezte; horrelakoak dira nekazaritzako erreforma eta garapenari buruzko legeria orokorrean izaera hori dutenak.

b) Bide menpekotzak kentzea.

c) Nekazaritzako ustiategiak berregituratzea; kasu honetan sartzen dira lurzati berrantolamendu pribatu bat gauzatzeko egin behar diren truke anizkoitzak.

20. artikulua. Erregistroan inskribatzea.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "kostubidezko ondare eskualdaketak" kontzeptuko zerga-oinarrian 100eko 90eko murrizketa izanen dute honakoek: jabetza espedienteek, ezaguntasun aktek eta lehentasunezko ustiategi batean integraturiko finkak edo halako ustiategi bat osatu ahal izateko integratzen direnak Jabetza Erregistroan inmatrikulatze edo etendako erregistro-traktuari berretzeko erabiltzen den beste edozein prozedurak.

Murrizketa hau 100eko 100era iritsiko da aipatu finken titularra nekazari gaztea denean.

21. artikulua. Lehentasunezko ustiategi elkartuendako zerga onura bereziak.

1. Amortizazio askatasuna izanen dute nekazaritzako jarduerari loturiko higiezin material eta inmaterialen elementuek, baldin eta lehentasunezko ustiategi izaera lortzen den egunaren ondoko lehen bost urteetan eskuratuak badira.

2. Ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen arabera bereziki babesturiko nekazaritza kooperatiba gisa eratuta dauden lehentasunezko ustiategi elkartuen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren barnean kuota osoaren hobaria, Zerga horren 28.2 artikuluan aurreikusia, 100eko 80koa izanen da.

22. artikulua. Nekazari gazteendako edo soldatapeko nekazariendako zerga onura bereziak.

Foru Lege honen 15, 16 eta 18. artikuluetan aurreikusitako zerga onurez gain, nekazari gazteek edo soldatapeko nekazariak beste hauek ere izanen dituzte:

1. Nekazaritzako ustiategi baten edo horren zati baten zein landa finka baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat lehen aldiz instalatzen duen nekazari gazte edo soldatapeko nekazari baten alde, orduan, salbuetsia egonen da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergatik.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarduerako etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoa erabiliz zehazten duten nekazari gazteek edo soldatapeko nekazariak, beren nekazaritza jarduerari dagokiona 100eko 25ean murriz-

tu ahalko dute, lehentasunezko ustiategi bateko titular gisa lehen aldiz instalatu ondoko bost urteetan itxitako zergaldietan, baldin eta ustiategia hobetzeko plan bat egin izana egiaztatzen badute. Arestian aipatu instalazioa Foru Lege honen 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egina izanen da.

Aurreko lerroaldean aipaturiko etekin garbia, zenbatespen objektiboaren metodoari buruzko arauak aplikatzearen ondoriozkoa izanen da soilik.

Zenbaki honetan aurreikusitako murrizketa zeinu, indize edo moduluen modalitatean aplikatuko da nekazaritzako jarduerari dagokion etekin garbiaren gainean, eta koefizienteen modalitatean, berriz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen ekainaren 8ko 209/1992 Foru Dekretuko 28. artikuluko aipaturiko gastuak kendu eta gero; murrizketa hau bateraezina da aipatu artikuluan zerbitzuak ematearen arloko merkataritza jardueretarako, nekazaritza, abeltzaintza, oihan-lan eta arrantzakoetarako oro har ezarrita dagoenarekin.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa. Foru Lege honen 15. artikulutik 22.era bitartekoetan aurreikusiak dauden zerga onurak honako irizpideei jarraikiz baizik ez dira aplikatuko: Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikuluan azaltzen den Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako irizpideak.

Bigarrena. Nekazaritzako Ustiategiak gaurkotzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 16. artikuluko 1. idazatian xedatutakoari jarraikiz, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioan dagoen Lehentasunezko Ustiategien Katalogo Orokorrean sartzearen, aldian-aldian Ministerioari jakinaraziko zaio Nafarroan lehentasunezko moduan sailkatu diren nekazaritza ustiategiak eta horien aldaketak zeintzuk diren.

Xedapen Iragankorrak

Lehenengoa. 1998ko abenduaren 31 arte nekazaritzako famili ustiategi hauek lehentasu-

nezko izaera izan ahalko dute: lan-unitatearen errenta erreferentziako errentaren 100eko 30etik gorakoa eta 100eko 120tik beherakoa izanik, nekazaritza laneko unitate erdia, gutxienez, okupatzeko aukera dutenek, Foru Lege honen 10. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak bete-tzeaz gainera.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo bost urteko epean azaltzen diren ondareko gehikuntza garbiak -landa finkak edo nekazaritzako ustiategiak eskualdatzearen ondorioz sortuak-, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatzearen ondoriozko etekin garbian sartuko dira, arau ezarritako zenbatekoarekin eta, beti ere, aktiboak subjektu pasiboaren ondarean bost urtez, gutxienez, egon badira.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da eskualdaturiko landa finkak edo nekazaritzako ustiategiak eskuratzailerak lehentasunezko ustiategiak eratu edo finkatzeko erabiltzea, edo Administrazio Publikoek eskuratzea lur bankuetan edo antzeko organoetan sartzeko, edo naturguneak babesteko arrazoiengatik.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez garatuko ditu bai eskualdaketa egiten dutenek bai eskuratzailerak bete behar dituzten baldintzak, Xedapen honetan ezarritakoaren aplikaziorako.

Azken Xedapenak

Lehenengoa. Baimena eman zaio Nafarroako Gobernuari, Foru Lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Adizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Hala ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren arloko zerga onurak aplikatuko zaizkie Foru Lege honek indarra hartu ondoren amaitzen diren zergaldiei.

Hirugarrena. Indarrrik gabe gelditu dira Foru Lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen

AKATS ZUZENKETA

Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektua argitaratzeko ofizioan akats bat ohartu da. Aipatu Foru Lege proiektua 1997ko azaroaren 17ko 76 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ondoren zuzentzen da.

– “Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea” esaten den lekuan, “Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Toki Administrazio Batzordearen esku uztea” esan behar da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Foru Gobernua premiatuz Belate eta Almandozko tunelak erabilerara publikorako zabal ditzan

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak mozioa aurkeztu du, Foru Gobernua premiatuz Belate eta Almandozko tunelak erabilerara publikorako zabal ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Herrilan eta Azpiegiturak Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du Herrilan eta Azpiegitura Batzordean eztabaidatzeko.

Belateko tunelak dira, zalantzarik gabe, azken garai hauetan Nafarroak egin dituen herrilan handienetako bat. Aurrerapen handia ekarriko dute gure Komunitatea beste batzuekin lotzeko baita gure lurraldeko alderdi ezberdinak elkarrekin lotzeko ere.

Tunel horien interes orokorra ukaezina da, eta argi eta garbi dago oso garrantzitsua dela denontzat funtzionamenduan jartzea negua heldu baino lehen.

Badira egun batzuk tunelak bukatuta daudela, baina ezin dira erabili Gobernuak hala agindu duelako, arrazoi teknikoekin zerikusirik batere ez duten inguruabarrak direla medio.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du Belate eta Almandozko tunelak erabilerara publikorako ireki ditzan ahal den eta azkarren, negua hurbil dagoelako.

Iruñean, 1997ko azaroaren 5ean

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Mozioa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatuz N-121 errepidea, Belateko mendatetik iragaten den tartean, trafikorako zabal dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak mozioa aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatuz N-121 errepidea, Belateko mendatetik iragaten den tartean, trafikorako zabal dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren

192. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran izapida dadin.

Belateko mendi portua zenbait tunelen bidez zeharkatzen duen N-121 errepideko tartearen lanak bukatu dira, eta Nafarroako Gobernua zain dago Errege Etxeak Joan Karlos I.a erregea bertan egongo den egun bat noiz finkatuko errepide tarte horren irekiera egiteko. Hori dela-eta aurkezten zaio Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurari ondoko

Erabaki Proposamena:

Herrilan Departamentuari eskatzen zaio:

1. Belateko mendi portua zeharkatzen duen N-121 errepidearen bukatu berri den tarte ibilgai-luentsat ireki dezala berehala.

2. Errege Etxean behar diren kudeaketak egin jarraitu dezala Joan Karlos I.a erregeak aipatu errepideko tartearen irekiera ofiziala egin dezan.

Iruñean, 1997ko azaroaren 6an

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat igor dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat igor dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192 eta 193. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran izapida dadin:

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Foru Parlamentuari ekainaren 18an jakinarazi zizkion proposamenak aztertu eta baloratu ditu.

Federazio horrek Parlamentari Taldeei egin zizkien eskabideen artean, berebiziko interesa du, gure ustez, planteatutako ondoko gaiei buruz Nafarroako Parlamentuak egin behar duen balorazioa:

– Berrikuntza bati ekin beharra Toki Administrazioari hiru arlotan: eskumenak, antolamendua eta ekonomia eta finantzaketako arloa.

– Toki Administrazioaren berregituraketari ekiteko, jarrera eta neurri batzuk ezartzeko komentzia.

– Toki entitateak hartzea Nafarroako bi administrazioetako bat bezala.

– Nafarroako Gobernuak behartzea toki entitateekin dituen betebeharrak betetzera, batez ere Toki Administrazioari eta Toki Ogasunei dagokionez.

– Nafarroarentzat oso garrantzitsua izango litzateke Osoko Bilkura bat egitea Nafarroako Toki Entitateen egoera aztertzeko.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuari aurkeztu diogu ondoko Erabaki proposamena

Nafarroako Gobernuak erabaki hau onetsi eta hilabeteko epean igor dezala Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat duen jakinarazpena, Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko jakinarazpen hori jaso eta hurrengo hilabetean.

Iruñean, 1997ko azaroaren 12an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, “Reforma de las Humanidades” deitutako Dekretua gaitzesten duena

EZKER ABERTZALEA PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, “Decreto de Humanidades” delakoa gaitzesten duena biderapenerako onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioaren Foru Parlamentaria den Patxi Zabaleta Zabaleta, Ganbararen Arautegiaren 192. artikuluekin eta ondokoekin bat etorritik, hurrengo mozioa aurkeztu du.

Euskal Herriak bere hizkuntza, kultura eta historia propioa daukela uka ezinezko errealitate dugun bezalaxe, gure herriak dituen berezitasun juridiko zein politiko guztien iturburu eta oinarria horixe dela gauza jakina eta ia guztien aldetik onartua da.

Nortasun berezia duen gizarte honi bere Herri-tartasun eta Naziotasunaren ardatza eta oinarriak hezkuntza sistemaren zutabeak izan daitezkeen nori uka diezaiokete? Haur eta gazteei gure Herri izaera ezagutzen eta maitatzen irakasten ez badiegu, nola iraungo du gure arbasoengandik jaso dugun ondare kulturalak?

Irakaskuntza sistema propioa eta bereziaren aldeko lana eta jarduera aspaldiko herri ametsa eta gurasa zein irakasle askoren jarduera aberatsa izan dugula ukatu edo ahanzi ezina dugu. Zertan datza irakaskuntza sistema propioa, baldin eta Euskal Herriaren izaera berezia ezagutzeko ahalmena ukatzen bazaigu?

Madriko Gobernuak inposatu nahi digun “Decreto de Humanidades” delako proiektu horrek Espainiako Estatu nazio anitzekoa dela ahanzi egiten du eta nazio bakarraren ikuspegi atzerakoa eta zaharkitua erakusten digu. Horrela, egunero bizi ditugun beste hainbeste inposaketaren ondorioz, formetan ere antzinako garaietara itzularazi nahi gaituztela nabarmentzen ari zaizkigu.

Irakaskuntza sistemaren LOGSEk ekarri digun “erreforma” oraindik hasieran dagoenez gero, ezinbestekoa den ebaluazio edo balantzerik egiteko aukerarik ez da egon. Hala ere, Alderdi Popularra “kontrarreforma” prozesu nabarmena bultzatzen ari da. Horrela posible al da irakaskuntzaren kalitateaz mintzatzea? Serioa al da ikasketa plan-

gintza baten fruituak aztertu eta behar den bezala ebaluatu gabe beste proiektu batekin hastea?

Urteetan entzun, ikasi eta esan izan dugu hemengo irakaskuntza sisteman arlo memoristikoa gehiegi erabiltzen genuela eta arrazonamendu logikoa gutxiegi; buruz gauza asko memorizatu baina neska-mutilek ez zekitela nola ikasi, nondik informazioa jaso edo informe bat nola egin. Proiektu berri honen arabera, metodo zaharkituetara jotzen da. Atzera begira eginga da eta ez etorkizunean oinarritua.

Hauek eta beste arrazoi askorengatik "Humanidades" dekretua dela eta gure gizartean kezka eta haserrea nabarmendu da. Kezka, ustez gainditurik zeuden eztabaidetara itzultzen garelako,

eta haserrea, berriro ere gure herri izaera ukatu eta inposizio nabarmen baten aurrean aurkitzen garelako.

Guzti horrengatik, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak hurrengo erabaki proposamena aurkezten du:

1.- "Reforma de las Humanidades" deitutako dekretu proiektu hori errefusatzeari.

2.- Baldin eta Madrileko Gobernuak jarrera berarekin jarraituko balu, "pase forala" deitu ohi den jokaera erabiltzea.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Foru Parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa, Foru Gobernuari zenbait sendagai Gizarte Segurantzako zerrendetatik kanpo uztea egoki diren instantzietan arbuia dezala eskatzen diona

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak mozioa aurkeztu du, Foru Gobernuari zenbait sendagai Gizarte Segurantzako zerrendetatik kanpo uztea egoki diren instantzietan arbuia dezala eskatzen diona. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, hurrengo Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

PP eta CIU adostasun-hastapen batera iritsi dira, Gizarte Segurantzako zerrendetatik 500 sendagai baino gehiago kanporatzeko; hauxe da osa-

sun publikoaren finantzaketaren defizitari eskuinak ematen dion erantzuna.

PPko Gobernua Konstituzioak aldarrikatzen duen zerga-sistema progresiboa eraisteko gogo biziarekin ez balego, ezinbesteko zerbitzu publikoaren finantzaketa-defizitak ez lirakeke existituko, edo osasun-babes publikoaren maila jaitsi gabe kudeatu ahal izango lirakeke.

Aznar jaunak osasun-arloan eskumenak dituzten Autonomi Erkidegoen aurretiazko laguntasuna eskatuko duela iragarri duenez gero, Nafarroako IU/EBn beharrezko deritzogu Nafarroako Parlamentuak osasun-babes publikoaren maila jaistearen kontrako jarrera argi eta garbia hartzeari, Nafarroako Gobernua hau egin dezan premiatuz: hain zuzen, adieraz diezaiola gobernu zentralari 500 sendagai baino gehiago Gizarte Segurantzako zerrendetatik at uztearen aurka dagoela.

Beraz, Nafarroako IU/EB Parlamentari Taldeak honako hau aurkezten du:

1.- Nafarroako Parlamentuak hauxe galdetzen dio Foru Gobernuari: PPK eta CIUK 500 sendagai baino gehiago Gizarte Segurantzak ordainduriko sendagaien zerrendetatik kanpo uzteko adosturiko neurriak arbuia dituzala egoki diren instantzietan. Neurri hau aplikatzeak gizarte prestazioetan mozketak larria eragingo luke.

2.- Nafarroako Parlamentuak erantzukizun politikoa galdatuko dio Nafarroako Gobernuari Erabaki Proposamen honetako lehen puntuak jasotzen duen Parlamentuaren agindua betetzen

ez baldin badu.

Iruñea, 1997ko azaroaren 17a

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

F Saila:
GALDERAK

Bideko Ama Birjina ospitalean burutu den langileria-politikari buruzko galdera

ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Bideko Ama Birjina ospitalean burutu den langileria-politikari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak ahozko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Rosario Villanueva Iturralde, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 186. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako ahozko galdera

hau egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuraren aurrean erantzun dezan:

Joan den urrian, zortzi osasun-profesionalek Bideko Ama Birjinaren Ospitaleko Laguntza Batzorde Teknikoa utzi egin zuten, Ospitaleko antolaketan buruturiko aldaketei buruzko informazio-ezagatik protesta egiteko. Hori, osasun-langileen partehartze, komunikazio eta informazioari sistematikoki muzin egiten dion kudeaketa baten ondorioz izan da.

Hori guztia dela-eta, zera jakin nahi da:

Zerbitzuaren kalitatea lortzeko beharrezko baldintza delakoan osasun-langileei zentroen helburu eta xedeen arduran partehartzea emateko joera nagusitu den garaia izanik, orain arte burutu den langileria-politikarekin jarraituko al da?

Iruñea, 1997ko azaroaren 17a

Foru Parlamentaria: Rosario Villanueva Iturralde

Gizarte Segurantzako sendagaien zerrendetatik produktuak ezabatzearen gainean Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzko galdera

ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Gizarte Segurantzako sendagaien zerrendetatik produktuak ezabatzearen gainean Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak

ahozko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Rosario Villanueva Iturralde, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 186. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuraren aurrean:

Autonomia Erkidegoetako hainbat Gobernuak eta alderdi politikok beren jarrera agertu dute osasun-gastua Gizarte Segurantzak ordainduriko

sendagaien zerrendetatik produktuak ezabatuz finantzatzeari buruz Estatuko Gobernuak duen azterlanari dagokionez.

Hori guztia dela-eta, zera jakin nahi da:

Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera gai honetan eta goikoa aplikatzeko asmorik ba al du, murrizketa egitearen ardura Foru Komunitateari ematen baldin bazaio?

Iruñea, 1997ko azaroaren 17a

Foru Parlamentaria: Rosario Villanueva Iturralde

Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen bitartekotasun-tasari buruzko galdera

ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen bitartekotasun-tasari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak ahozko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Rosario Villanueva Iturralde, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduko 186. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuraren aurrean:

Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen bitartekotasun-tasa %42a baino haundiagoa da, gure kalkuluen arabera. Hori guztia dela-eta, zera jakin nahi da:

Plaza hutsak betetzeko deialdiei dagokienez gaur egungo politika aldatzeko asmorik ba al du Kontseilari jaunak? Halaber, Kontseilari jaunak posible jotzen al du langileriaren integrazioa, trebakuntza eta motibazioa gaur egungoa bezalako bitartekotasun-tasekin?

Iruñea, 1997ko azaroaren 17a

Foru Parlamentaria: Rosario Villanueva Iturralde

Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialean aurkezturiko eskabideak beste zentro batzuetara desbideratuko ote diren itauntzen duen galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialean aurkezturiko eskabideak beste zentro batzuetara desbideratuko ote diren itaunduz egin duen galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den urriaren 2an galdera parlamentarioa egin nion Nafarroako Gobernuari Tuteran egoitza duen Hizkuntza Eskola Ofizialari buruz, ikasturte hasieran gertatzen ari ziren arazoak zirela eta. Eskola horretan, plazarik ez zegoelako aitzakian, ukoa ematen ari zitzairen hirugarren maila gainditu ondoren ingeleseko laugarren maila ikasi nahi zuten ikasleei.

Haren bidez galdetzen nuen Nafarroako Gobernuak burutzen ari zen edo burutzeko asmo zituen ekintza edo neurriei buruz, izan ere Tuteran egoitza duen Hizkuntza Eskola Ofizialaren plazen eskaintza zabaltzeko, ikusirik 10.000 eskaera baino gehiago zegoela 3.475 plazetarako.

Bada, Hezkuntza Kontseilariaren bitartez Nafarroako Gobernuak eman duen erantzuna erabat eskasa da, izan ere ez baitaie erantzuten nik egindako galderari eta, are gehiago, Europar erantzunik ez duten eskola hauen etorkizunari buruzko zalantza dagoela ere adierazten delako.

Espainiak Europako indize baxuenak ditu bigarren eta hirugarren hizkuntza bat jakiteari dagokionez. Hizkuntzak jakiteari buruzko indize hobekiak balio erantsia du Europako Batasunean eta deialdi askotan eskatzen den lanbide koalifikazioetan.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Pentsatu al du Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Eskola Ofizialerako eskaerak desbideratzea beste zentro batzuetara, esate baterako 1997ko urriaren 30eko erantzunean adierazi zituenetara?

2. Zein da Nafarroako Gobernuak Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialerako duen planteamendua eta aurreikuspena epe labur, ertain eta luze-ra: zabaltzea baliabide eta aukeretan; eskaerekiko oraingo plazarik ezean mantentzea; edo murriztea eta, are gehiago, desagertaraztea 1997ko urriaren 30eko erantzunetik ondorioztatu daitekeen bezala?

3. Noizko aurreikusi dira Nafarroako hizkuntzen irakaskuntza berrikusteari zuzenduriko jardunaldiak? Zeri buruz izango dira eta nor izango dira partehartzaileak?

Iruñean, 1997ko azaroaren 10ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Zangozako Ur Mankomunitatearentzako ur-hornidura obren kontra aurkeztutako balizko salaketari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Zangozako Ur Mankomunitatearentzako ur-hornidura obren kontra aurkeztutako balizko salaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Ongaitz Naturaren aldeko Elkarteak joan den azaroaren 10ean salatu zuen Alcer enpresak, alegia, Zangozako Ur Mankomunitaterako presio handiko ur hornidura burutzen ari zenak, egindako zenbait jarduketa. Naturaren aldeko elkarte horren lehendakariaren hitzetan: "ibaiertzeko zuhaitzak neurrigabe mozten ari direlako, haietako batzuk tamaina handikoak, esate baterako sahasak, makalak, haltzak eta lizarrak. Gainera lur asko mugitu dute eta enborrak erretzen saiatu dira

moztutako arbolak ezkutatzeko; horrela, ibarbasoko alderdi bat erabat suntsitu zuen sute txiki bat ere sortarazi zuten".

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ezagutzen al ditu Nafarroako Gobernuak salatutako egitate horiek? Ikerketarik zabaldu al du? Nor edo nortzuk ziren jarduketa hori, alegia, hasieratik ingurugiroan kalterik txikiena sortzeko aurreikusi zen hura, kontrolatu behar zutenak?

2. Ikusirik arazo gehiago gerta daitezkeela, batez ere Ongaitzek egindako salaketa eta gero, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Departamentuak kontrol neurriak indartzea?

3. Naturaren aldeko elkarte horrek beste arazo guñe batzuk aurreikusten ditu salaketan, izan ere, ur hornidura hori igaroko delako besteak beste Gaberderalgo adarretik, Ronda pasealekutik, Cantolaguako arboladitik, pinu eta arteen birlاندaketa batetik eta abarretik. Zein jarduketa aurreikusi ditu Ingurugiro Departamentuak salatutako egitateak berriz gerta ez daitezen?

4. Uste al du Nafarroako Gobernuak salatutako egiteateak espedienteren bat zabaltzeko modukoak eta zehapenen bat ezartzeko modukoak direla?

Iruñean, 1997ko azaroaren 10ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nafarroako etxebizitzaren prezioari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako etxebizitzaren prezioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aldian-aldian Sustapen Ministerioak zenbait estatistika ematen ditu etxebizitzaren multzoko metro koadro eraikiaren prezioari buruz. Ezagutu ditugun estatu mailako azken datuen arabera,

arestian aipatu dugun metro koadroaren prezioa 113.641 pezeta da. Horrek esan nahi du halako "gelditze" bat izan dela estatu mailako prezioan, aurreko aldi eta urteetako datuekin konparatzen bada.

Datu errealei buruzko zenbatekoak lortzeko Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) erabiltzen da konparaziorako; horrek etxebizitzaren prezioen bilakaera aztertzea errazteko bidea ematen du. Gauza jakina da KPIren bilakaera ez dela bat autonomi elkarte guztietan.

Nafarroako Etxebizitzaren Prezioa dela eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Zein da gure komunitatean eraikitako etxebizitza baten metro koadroaren prezioa? Eta eskualdeka hartuta (Iruñeko eskualdea...)? Zein

bilakaera izan du prezio horrek azken bi urte hauetan?

2. Mantentzen al du Nafarroak bilakaera-lerro bera etxebizitzetan Espainiako Estatuaren aldera? Ezberdintasunik bada, nondik heldu dira?

3. Zein izan da Nafarroan eraikitako etxebizitzaren metro karratuaren prezioak urtean izan duen aldaketa-tasa? Eta Kontsumorako Prezioen Indizearena (KPI)?

4. Zein jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak ahal dela gure Komunitateko etxebizitzaren prezioa mantendu edo jaisteko?

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Behi-ustategietan kalitatezko esnea ekoizteari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak behi-ustategietan kalitatezko esnea ekoizteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Gaur egun, ondokoak dira bere kalitate higieniko eta osasun kalitatearen arabera esnea baloratzeke ezarri diren irizpideak: kalitate bakteriologikoa, germenen kopurua, inhibitzaileen presentzia, substantzia arrotzen presentzia eta puntu krioskopikoaren edo urtzeko puntuaren neurria.

Europako Batasuna aztertzen ari da 1998. urtearen hasierarako arautegi berri bat erabiltzen

hastea behi-aziendatik heldu den esnearen kalitatea neurtzeko.

Nafarroako behi-ustategietan kalitatezko esnea ekoiztea dela eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Nafarroako zenbat esne-ustategik betetzen dute gaur egun indarra duten kalitate bakteriologikoko arauetan ezarritakoa? Ustategien tamainaren arabera (zenbat abelburu), zein da ustategi horien egitura?

2. Zein aurreikuspen (zenbat ustategi) daude hemendik bi hilabete baino gutxiagora indarrean sartuko den Europako arau berri hori betetzearen inguruan? Arau berri horrek nola ukituko ditu esnearen sektoreak gaur dituen arazoak?

3. Zein jarduketa egiten ari da edo egin behar ditu Nafarroako Gobernuak behi-aziendaren ustategietako teknikak bat etor daitezten aurreikusi den Europako arautegia betetzen duen kalitatezko esnearen ekoizpenarekin? Zein organismok, entitatek edo erakundek burutuko dituzte jarduera horiek? Nola finantzatuko dira?

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubidearen egoerari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubidearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Garraioaren Hiria eraikitzeke lanak burutzearen ondorioz, Imarkoingo udalerrian halako ezponda txiki bat egin zen aipatu hiritik zetozen urak jasotzeko.

Garraioaren Hiria urez hustutzeko lanetan, 1.400 mm eta 600 mm diametroko bi hodi jarri

behar ziren, urak arestian aipaturiko ubide txiki hartara eramateko. Ubide horrek tarte batzuetan 50 cm-ko zabalera du.

Behin uda pasa denean, ubide hori ez zen aski izan Garraioaren Hiriak dituen 600.000 metro karratuetan ekaitzen ondorioz bota zuen euria bideratzeko, eta urez bete ziren inguruko zelaiak eta hurbileko zenbait etxebizitzetako beheko solairuak.

Imarkoingo Garraioaren Hiriko hustubideen sistemaren egoera dela eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Ebaluatu al ditu Nafarroako Gobernuak joan den abuztuaren 6ko ekaitzak Imarkoianen sortu zituen kalteak? Zenbatean kalkulatu daitezke hustubideen sistemaren funtzionamendu txarraren ondorioz sortu ziren kalteak? Nork hartu du bere gain kalte horien zenbatekoa?

2. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Garraioaren Hiriak euri-urak hustutzeko sistemaren egoera hobetzea? Baiezkoan: zein lan gauzatu behar ditu? Noizko bukatuko dira?

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, S.A. izeneko sortzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, S.A. izeneko sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Ministroen Kontseiluak, gaurko bilkuran, Sociedad Estatal de Aguas de la Cuenca del Ebro, S.A. izeneko sortzea onetsi behar du. Ingurugiro Ministerioak 30.000 milioiko hasierako kapitala jarriko du horretarako.

1998ko Estatuko Aurrekontu Orokorrek Laguntzeko Legeak aipaturiko sozietate horrek antolamendu malgua izango du, aurrekontuez gaindiko finantzaketa publikoa, kohesio fondoak eta balizko finantzaketa pribatua batera bildu ahal izateko, Estatuko Gobernuak eman dituen argibideen arabera.

Jaso dugun informazioak bestelako zehaztapenik egiten ez badu ere, sozietate anonimo horren bidez Ingurugiro Ministerioak nahi du lanak

burutzeko eta ustiatzeko gaurko eredia bihurtu enpresa-kudeaketarako beste eredu arinago eta malguago, Ibai arroetako Ur Planetan bildutako jarduketak azkartzeko.

Sozietate horren bidez hau sartu nahi da: finantzaketa pribatua lan eta azpiegitura hidraulikoetan eta haien enpresa-kudeaketan, baliabideak modu eraginkorragoan erabil daitezten.

"Sociedad Aguas de la Cuenca del Ebro, S.A."ren sorrera eta Nafarroan izango duen eragina direla eta, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Izan al du Nafarroako Gobernuak sozietate anonimo hori sortzearen berri? Kontsulta egin al zaio eta esku hartu al du sozietate horren sorreran?

2. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketarik egitea sozietate horrek eskainiko dituen zerbitzuak erabiliz? Zein jarduketa egin ahalko ditu enpresa horrek?

3. Nafarroako Gobernuak prest al dago sozietate horren eskumeneko lan edo azpiegituretako batean finantzaketa pribatua sustatzeko? Eta lan horiek burutzeko eskura diren baliabideen enpresa-kudeaketa? Baiezkoan: zein izan daitezke ukitutako jarduketak?

4. Uste al du Nafarroako Gobernuak enpresa-kudeaketa eta finantzaketa pribatuek gure komunitatean egiten ari diren edo aurreikusita dauden jarduketa batzuen burutzapena azkartu dezaketela?

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren Aurrerapenaren berri izan ote duen itauntzen duen galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren Aurrerapenaren berri izan ote duen itauntzen duen egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendáriz "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan idatzizko erantzunei buruz ezarritakoren babesean ondokoa dio:

Elkarte ekologista batzuek, berriki, beren kezka azaldu dute Parlamentu honetan Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Departamentuak bere eginkizunetan erakutsi duen utzikeriako jarrerarengatik, hain zuzen ere Bardeetako Komunitateak egin duen Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren Aurrerapena dela eta.

Aurrerapen horretan aipatzen zen aipatutako Antolatzeko Plana Nafarroako Gobernuak Foru

Dekretu batez onetsi behar zela, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostena ikusi eta gero. Era berean, haren edukian aipatzen zen natur parkeko deklaraziotik sortzen den organo kudeatzaileak egingo zituela Bardeetako lurraldean deklaraturako bi natur erreserbetarako erabilera eta kudeaketarako plan gidariak.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

Izan al du Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren Aurrerapenaren berri? Baiezkoan, ingurugiroaren ikuspuntutik, zer iritzi du haren edukia buruz?

Natur parkeko deklaraziotik sortzen den organo kudeatzaileak Bardeetako lurraldean deklaraturako bi natur erreserbetarako erabilera eta kudeaketarako plan gidariak egingo dituelako adierazpenaren aurrean, uste al du Ingurugiro Departamentuak gai horretako foru legediaren aurkako lege-haustea gertatzen ari dela? Ingurugiro Departamentuak aholkularitzako kudeaketaren bat egin al du edo egiteko asmorik al du indarra duen legedia betetzeko?

Zein aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren Foru Dekretua onesteko eta hura garatzeko?

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Egunotan Tafallan zehar Cidacos ibaiak duen ibilgua dragatzeko eta garbitzeko lanak burutzen ari dira.

Obra hauen ondorioz, ibaiaren ertzetako hainbat puntutan landaredi ugari deuseztatu da, eta

ibilgua kanal bihurtu da, bere forma geometriko naturalak aldatuz. elkarte kontserbaziozaleek hori guztia salatu egin dute.

Bestalde, aurreko ibilguan eraikuntza-material ugari bota zen.

Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketari buruz, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Aipatu ibilguan buruturiko lanak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimenarekin egin al dira?

2.- Egun burutzen ari diren lanei ekin aurretik egin al dira aurretiazko azterlanak?

3.- Basa lanen ondoriozko ingurugiro-eraginak garrantzitsutzat har daitezkeela uste al du Nafarroako Gobernuak? Erantzuna baiezkoa zein ezezkoa dela ere, zergatik?

4.- Nafarroako Gobernuak inguru hori babestu eta leheneratzeko jarduketarik burutzea aurreikusten al du? Zeintzuk?

Iruñean, 1997ko azaroaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Iruñea, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lurren kontrol eta jarraipenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iruñea, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lurren kontrol eta jarraipenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, uztailaren 30eko 788/1996 Foru Aginduaren bitartez, kutsaturiko lurzoruen kutsaduraren kontrol eta jarraipenerako lanak kontratatzeko espedientea onetsi zuen.

Hasieran seinaturiko kokalekuak hauexek ziren: Iruñea (Inabonos), Lodosa (Inabonos), Ekai

(Carbones y Destilados), Tafalla (Fagor Luzuriaga) eta Zangoza (Papelera Navarra).

Kutsaturiko lurzoruen kutsaduraren kontrol eta jarraipenerako lan hauek lehiaketa-sistemaren bidez esleitu ziren, lizitazio-preziora 10.630.000 pezetakoa eta burutze-epea urtebetekoa izanik.

Era berean, Foru Agindu baten bidez ere, uztailaren 30eko 789/1996 zenbakiduna, Nafarroako Gobernuak Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko bi lursailen kutsaduraren kontrol eta jarraipenerako lanak kontratatzeko espedientea onetsi zuen. Kasu honetan, lizitazio-preziora 7.340.000 pezetakoa eta burutze-epea urtebetekoa izan ziren.

Iruñea, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lursailen

kontrol eta jarraipenari buruz, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1. Zer enpresa, entitate edo erakunderi esleitu zitzaizkion aipatu lanak? Zer esleipen-preziotan?

2.- Aipatu herrietako lurzoru kutsatuen kutsaduraren kontrol eta jarraipenerako lanen emaitzak aurkeztu al dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan? Noiz?

3.- Horietako bakoitzerako esleipendun gertatu den enpresa, entitate edo erakundeak bidalitako dokumentazioak zein ondorio zehatz eskaintzen du? Jarduketa-prozedura horiek jarri al dira abian?

Iruñean, 1997ko azaroaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Hurrengo ehizaldirako espezieak eta aldiak arautzeko Nafarroako Gobernuak onetsi duen azken Foru Aginduak ez ditu aintzat hartu Ingurugiroko Nafarroako Kontseiluaren gehiengoak onetsi zituen aldaketak. Kontseilu hori organo kolegiatua da, 1993an Nafarroako Parlamentuak sortua

eta aholkularitza, partehartze eta kontsulta eginkizunak dituena. Organo horrek, gainera, berriki aldatu ditu bere kideak gizarteko ordezkari zabalagoa biltzeko.

Gaur indarrean dagoen Debekualdiei buruzko Foru Aginduan ez dira bildu, beraz, Nafarroako Ingurugiroko Kontseiluaren gehiengoak hartutako erabakiak. Horrek halako begirunerik eza bat suposatzen du Kontseiluan lege bidez sartu ziren gizartearen ordezkari horiek egindako proposamenekiko, izan ere Kontseiluan sartu baitziren ingurugiroaren, gizartearen eta kulturaren arloetako irizpideak transmititzeko zeukaten gaitasunarengatik eta gure Komunitateko ingurugiro kudeaketa erraztu eta hobetuko zuten ekimenak eta proposamenak burutzeko.

Ingurugiroaren eta politikaren arloetako kexuen ondorioz, Ingurugiro Kontseilariak hainbat bilera egin zituen talde ekologistekin eta ehiztarien elkarteekin. Bilera horietan, Kontseilariak akordio orokor bat lortzea proposatu zuen ordurako lantzeko prozesuan aurreratuta zegoen dokumentua, alegia, Ehizarako Plan Estrategikoa, oinarri hartuta.

Ekologistek eta ehiztariak ongi hartu zuten iradokizun hori eta lantalde bat sortzea erabaki zuten gizarte mailan halako adostasun zabal bat

lortzeko, behin Nafarroako Gobernuak Ehizarako Plan Estrategikoaren Aurrerapena onetsi eta gero. Kontseilariaren hitzetan, honako hau da Plan Estrategikoaren helburua: Nafarroako ehiza jarduera antolatzea, ehiza, naturaren kontserbazioa eta oihangintzaren eta nekazaritzaren garapena orekatuko dituen ikuspegi batez.

Hemendik gutxira bukatuko da orain dela bi hilabete zabaldu zen epea, alegia, Ehizarako Plan Estrategikoa hobetearren interesatuek nahi adina iritzi eta proposamen aurkeztekoa.

Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesua dela eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Bildu al da Nafarroako Gobernuak Ehizarako Plan Estrategikoaren (1997-2000) aurrerapena

onetsi ondorako Kontseilariak proposatzen zuen lantaldea? Zenbat aldiz? Zein jendek osatzen dute lantalde hori eta zein entitate, elkarte edo erakunderen izenean?

2. Ehizarako Plan Estrategikoari buruzko zenbat alegazio, proposamen edo iruzkin entregatu dira? Zein entitatek, elkartek edo erakundek egin dituzte?

3. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Ehizarako Plan Estrategikoa Nafarroako Parlamentura igortzeko, izapida eta onetsi dezan? Noizko aurreikusi du igorriko diola?

Iruñean, 1997ko azaroaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Eurovestir enpresari buruzko galdera

XABIER VELEZ MEDRANO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak Eurovestir enpresari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Xabier Velez Medrano, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua babesean, honako galdera egiten du idatziz erantzun dakion:

Zein jarduketa burutu ditu Nafarroako Gobernuak Eurovestir enpresako zuzendaritzak hartuta

ko azken erabakiek sorturiko arazoei irtenbidea bilatzeko?

Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Eurovestir enpresak aurkeztutako erregulazio espediente onartzea?

Galdeketa egin al du lan arazo honetan bitartekari aritu ote daitekeen jakiteko, hain zuzen ere lanpostuak lan baldintza duinetan errespetatu daitezkeen bermatzeko?

Enpresako zuzendaritzak bere asmoei buruzko informaziorik batere eman al du 42 lanposturen murrizketa egin aurretik, kontuan hartuta Gobernuak laguntza ekonomikoa eman ziola enpresa horri 251 lanpostuak mantendurik Bideragarritasun Plana egiteko baldintzapean?

Iruñean, 1997ko azaroaren 17an

Foru Parlamentaria: Xabier Vélez Medrano

“Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Legea)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Legea)” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas jaunak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Legea) izeneko aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren inguruan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak, Nekazaritza Azpiegiturak Berritzeari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Legean ezarri-

takoak, apirilaren 1eko 173/1996 Foru Dekretuan (1996ko apirilaren 29ko N.A.O.) eta 1996ko azaroaren 28ko Foru Aginduan (1996ko abenduaren 18ko N.A.O.) garatzen dira.

2. Aurrekontuen aurreproiektuan kontusail horretan ezarritako dirua 12 milioi pezetakoa da. Parlamentuko izapidaketaren ondorioz, 32 milioi pezetako kontsignazioa izan zuen.

Aurrekontuko ekitaldian zehar ez da inongo aldaketarik gertatu kontusail horretan.

3. Kontusail horretan ez dago aurreko ekitaldian hitzartutako ezer ere.

4. Eranskin bat jarri da izapidatutako espediente guztiak eta haien ezaugarriak zerrenda batean ematen duena.

5. Ez dago etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gasturik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Udala	Oinarrizko azaleraren gutxieneko muga ha.tan.	Oinarrizko azaleraren gehiengo muga ha.tan.	Espediente zenbakia	Izaera	Eroslea	Salerosketaren helburu den azalera ha.tan	Dirulaguntzen zenbatekoa (saltzailea eta eroslea)
Azkoien-Marcilla	5,0	17,5	5	Ureztalurrak	Juan José Cabeza Velasco	1,8339	410.156
Azkoien-Marcilla	5,0	17,5	7	Ureztalurrak	Carlos y José María Alemán Gutiérrez	1,3879	543.975
Azkoien-Marcilla	5,0	17,5	8	Ureztalurrak	Luis María y Juan Orduña Campo	0,7125	374.063
Azkoien-Marcilla	5,0	17,5	9	Ureztalurrak	Francisco Javier Resano Campo	2,6758	1.404.795
Azkoien-Marcilla	5,0	17,5	21	Ureztalurrak	Angel Asín Gogorza	2,9850	1.351.335
Traubuenas	5,0	17,5	17	Ureztalurrak	Vicente Garro Anaut	7,7864	1.659.933
Traubuenas	5,0	17,5	20	Ureztalurrak	Aurelio García Navarro y Carlos Ojer García	5,4818	1.125.000
Gares	3,5	23,0	15	Ureztalurrak	Julián Azcona Ezcurra	4,4523	2.995.201
Miranda de Arga	50,0	123,0	4	Lehorreko lurak	Carlos Alfaro Ilzarbe	42,1440	7.543.688
Miranda de Arga	50,0	123,0	10	Lehorreko lurak	Angel J. Otazu Jaurrieta	10,5816	809.866
Miranda de Arga	50,0	123,0	11	Lehorreko lurak	Jesús María Ibáñez Prieto	9,4011	550.000
Miranda de Arga	50,0	123,0	18	Lehorreko lurak	José F. Elcano Alfaro	6,4022	311.738
Deikaztelu	36,0	82,0	13	Lehorreko lurak	Pedro M. González Baqu.	2,0070	301.500
Iguzkitza	30,0	61,0	14	Lehorreko lurak	Ramón, Miguel y Carlos Hugo Abrego Bujanda	48,0560	11.563.674
Leatxe	36,0	82,0	16	Lehorreko lurak	Jesús Ayesa Aristu	3,8670	1.015.261
							31.960.185



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--